

Altza

Eva Monente (fnoo.:943271111)

altza eta inguruan erai-ki diren merkatalguneei aurre egiteko asmoz Auzoa dendari, ostalari eta zerbitzu elkarteak sortu zen duela sei hilabete. Pilar Garrote da elkarteko buru eta berarekin aritu gara solasean elkarteari buruz.


Zeintzuk dira Auzoak finkatu dituen helburu nagusiak?

Hiru helburu nagusi ditugu. Batetik, bertako bizilagunek behar dituzten animazio ekintzak antolatzea; errege bezperako kabalgata esaterako. Bestetik, edozein erakunderen aurrean ordezkaritza bat izatea, eta azkenik elkarteko partaideen artean prestakuntza lanak egitea. Euroari begira ikastarotxo bat egiten ari gara, besteak beste.

Nola erantzun dute auzoko dendariak?

Lehen urratsa iazko urrian eman genuen eta 33 dendarik onartu genuen proiektu hau. Egun 66 bazki-

"Altzako merkatarien %20 ordezkatzeko dugu"



Pilar Garrote da Auzoa elkarteko buru. Gustura dago elkarteak auzoan izan duen harrerarekin.

de gara, Altzako merkatarien %20 ordezkatzeko dugu. Altza eta Larratzoko dendak hartzen ditugu eta orokorrean dendariak gustura daude, bai bazkideak eta baita gainerakoak ere. Bazkide ez direnek ere antolatzen ditugun ekintzetan parte har dezakete.

Zein abantaila dituzte bazkideak?

Dirulaguntzak eskuratzeko errazagoa da eta bestalde

aldamenean duzun dendaria lankidetzat hartzen duzu, eta ez areriotzat.

Nola zaudete antolatuta?

Zazpi dendarik osatzen duten zuzendaritza batzordea hamabostean behin bil-tzen da. Bestalde, urtero batzar orokorra egingo dugu. Finantziarioari dagokionez, bazkide bakoitzak 5.000 pezeta ordaintzen ditu hiru hilabetero.

"Egun 66 bazkide gara Auzoa elkartean"

Asteburuan ekintza berezi bat duzue, ezta?

Bai. Hilaren 15ean eta Aste Santua hasi baino lehen, eguberrietan hasitako zozketa egingo da. 60.000 txartelen artean bat aukeratu-tuko da, eta irabazleak Auzoa elkarteko dendetan 100.000 pezeta gastatzeko aukera izango du.

Nola erantzun du jendeak?

Hasieran zerbait erosten zuten pertsona bakoitzari ekimena azaldu behar zitzaion. Orain berriz, jendea zain dago, irrikitan, jakin nahi dute dagoeneko irabazlearen izena.

TABERNA JATETXEA

Iberiar solomo eta urdaiazpikoa
Pintxo hotz eta beroak
Karta menua
Befiko sukaldaritza

Portu kalea 8
Tfnoa.: (943) 424272

HONTZA ELKARTEA

Eliza kalea 5 • Tfnoa.: 943-46 82 37 • LOIOLA auzoa, Donostia

PARMA hotela

Itsaso aurrean.
Bainua, berogailua, telebista
eta telefona gela guztietan

SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TFNOA: (943) 42 80 19